

Patxi Meabe

IRAKASLEA

Herriaren hitza ote?

G

ALDERA KEZKAGARRIA. Hauteskundeak berriro ere ate joka ditugun honetan, itxaropena eta frustrazioa sentitzen ditugula aldi berean esan genezake. Nahia eta ezina.

Victor Hugo izan zela uste dut ondorengo idatzi zuena: "Txoriek hegoak bezala, arimak ilusioak ditu eta horiek dira bere eusgarri". Ez ote zaigu antzeko zerbait gertatuko hauteskunde hauetan? Hortik jende askoren galdera: "Botoa eman, zertarako?" Ondorengo aste hauetan gogaitu arte hitz egingo da hauteskunderaz. Nik lerro hauek soilik idatzi nahi ditut, gutako askok sentitzen dituen etsipena eta itxaropenaren arrazoiak zertxobait aztertzeke.

ETSIPENAREN ZERGATIAK. Gure etsipenaren arrazoietakoa bat ziurrenik gehiagi amets egitea izan da. Gauzak guk nahi bezain azkar, eta guk nahi bezalako norabidean aldatuko zirela, pentsatzea. Ilustrazio garaiko pentsalari ezagun batek aspaldi esan zuen: "Gizakiak zenbait egoeratan bere erakunde publikoak bat-batean alda ditzake. Hala ere, legeen aldaketa eta biziera eta pentsaera aldaketak astiro eta pausoka egiten dira". Ikuspegi oker honek ezkortasuna eragin du askorengan eta gazteenengan bereziki. Horrela ba, "ez dago zer eginik, alferrik da" esateko ez da asko behar.

✓ Polarizatutako aniztasuna duen euskal gizartean bizi gara. Gure artean diharduten indar politikoen arteko erradikalismoa, gogortasuna eta ezin eramana ulertzea ez da erraza. Erakundeetan prepotentzia izateak edota hauen aurka sistematikoki aritzeak ezin diezaiokete herri honi gizarte aurrerakoi eta moderno izateko beharrez-



DANI BLANCO

koak dituen erabakiak hartzea galerazi. Horrelako posizioek isolamendura eta gorrotora bestetara ez garamatzate.

✓ Gure kasuan badago esan beharreko beste arrazoi bat: ETArek borroka armatuak bizitza politikoan duen eragina. Ondorioetako bat, zalantzazko legezketasuna duen Alderdien Legea, hainbat hiritar euskaldun, ordezkotza politikorik gabe uzten duena. Lege antidemokratikoa. Hala ere, asko gara egoera triste eta ez-bidezko hau, dagokien taldeek beste era bateko postura eta jitea azaldu balute, konpon zitekeela pentsaten dugunak. Adostasunak zailtzen dituzten oztopoak ez kentzeak ez du elkarbizitza eta gatazka politikoa gainditzen laguntzen.

ITXAROPENERAKO ARRAZIOIAK. Ba al dago itxaropenerako arrazoirik? Oskar Wildek esan zuen "utopiarako lekurik ez duen maparik ez gure keela kontuan hartu behar". Arrazoiak galanta eta guretzat ere baliozkoa.

✓ Gure gizarte-harremanak eraberritu eta bultzatzea. Gure herria nekatuta dago tirabira politikoak medio eta giza-harreman horiek berbidatzea eskatzen ari da.

✓ Solidaritza zeinuak lantzea. Herri askotan egiten dena jadanik eta oraindik ere gehiago egin daitekeena irudimen eta ausardia pixka batekin.

✓ Ildo honetan lortuko dugu hauteskunderen partaidetza. Kritika politikoa benetako demokraziaren oinarritzko ezaugarria da, baina kritikakeriek eta etengabeko deskalifikazioek desprestigio giroa eta gazteengan konpromiso politikotik ihes egin nahia sortzen dute. ■

TXANDAN

Sustrai Colina

Bueltak amari



Jakin nahi nuke zenbat errepide galdu asfaltatu diren azken hilabeteotan, zenbat kultur-etxe glamuroso inauguratu diren, zenbat polikiroldegi moderno berritu.

Jakin nahi nuke zenbat kultur-ekitaldi interesatu antolatuta diren, zenbat *lunch ruinoso*, zenbat ustezko informazio bilera ireki. Jakin nahi nuke zenbatek agindu dizuten eman ezin dizutena, zenbatek estutu dizuten bostekoa, zenbatek hartu zaituzten irribarre *adegitsuz*... Justu orain, orain justu.

Legealdiari mandatua esaten dio lagun batek. Larunbat goizeko enkariguak egitea bezalakoa omen da politika. "Amak hiru-lau erosketa egiteko dirua ematen dik, eta etxerakoan, erosketak mahai gainean eta bueltak amari, bestela... Politikariekin, ordea, enkarguen erdiak eskas dituk, bueltak atxikitzen ditiztek, eta ez duk ezer gertatzen. Horregatik akordatzen nauk euren amekin!".

Ez dakit geure mandatua geuk egitea ez ote den hobeia izango. Askok balio du ama gustura uzteak. Gainera ez dute amarik ilegalizatzen. Oraingoz. ■